

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Europako Batzordeko lehendakariordeak CENER zentroaren azkeneko I+Geko proiektuak eta entsegu-azpiegiturak ezagutu ditu

*Maros Sefcovic Europako Batzordeko lehendakariordearekin batera egon dira Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdi, Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioko Zientzia eta Berrikuntzako idazkari Nagusi Juan Maria Vazquez eta Pablo Ayesa, CENEReko zuzendari nagusia, besteak beste*

Ostirala, 2017.eko martxoak 17

Europako Batzordeko lehendakariorde eta Energiaren Batasunaren arduradun Maros Sefcovic jaunak gaur, ostirala, bisitatu du [CENER](#) zentroaren (Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala) egoitza Sarrigurenen, eta zentro horrek Zangozan duen Aerosorgailuen Entsegu-Laborategia; xehetasunez ezagutu ahal izan ditu zentroa energia-gaiei buruz garatzen ari den I+G+b-ko proiektuak, bai eta nazioartean entzutea eman dioten entsegu-azpiegiturak ere.



Taldeko argazkia, CENERen Sarrigurenoko egoitzaren kanpoaldean.

Espainiarako bere bisitaren helburu nagusietako bat, hain zuzen ere, azpiegitura bereziak ezagutzea zen, berriztagarrien sektorean Europan daudenetako batzuk.

Europako Batzordeko lehendakariarekin batera egon dira bisita horretan CENEReko lehendakaria eta Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikoko lehendakariordea den Manu Ayerdi, Juan Maria Vazquez Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioko Zientzia eta Berrikuntzako idazkari nagusia eta Pablo Ayesa CENEReko zuzendari nagusia, beste agintari batzuen artean; baita zentroaren Kudeaketa-batzordeko kideak ere. Halaber, europar ordezkariak osatzen zuten Sefcovic lehendakariordearen kabineteko kideek eta Aranzazu Beristain Europako Batzordeko Espainiako ordezkariaren zuzendariak.

Bisitaren lehen zatia CENERen egoitzan egin da, eta prentsaurreko labur bat egin dute han. Agerraldi horretan, EBko lehendakariordeak adierazi du I+G+b "funtsezko oinarria" dela Energiaren Batasuna eraikitzeko. "Harro egon behar dugu CENERek, energia berriztagarriari eta gure hiri adimentsuen garapenari dagokionez, nazioartean eta Europan betetzen duen eginkizunaz", esan du.

Manu Ayerdik gogorarazi du iaz aurkeztu zela Nafarroaren 2030erako Energia Plana, eta plan horretan proposatzen dela 2030. urterako energia berriztagarrietatik etortzea energia-kontsumoaren % 50. Gainera, adierazi du Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarako sektore garrantzitsua dela energia berriztagarriena Nafarroan. "Horrek esan nahi du, inbertsiorako lehentasunezko sektorea izateaz gain, etorkizuneko erronkei aurre egiteko eskualdeko ekonomia gehien bultzatzen duen sektoretzat jotzen dela".

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioko Juan Maria Vazquezek, bestalde, azaldu du CENER bezalako zientziaren eta teknologiararen arloko azpiegitura handiak funtsezkoak direla karbono urriko energien garapen teknologiko berriak egiteko eta baliozkotzeko. "30 urte baino gehiagoan zehar egindako inbertsio publiko-pribatuei esker, Espainia herrialde liderra da sektorean. Adibidez, Espainiako enpresek kontzentrazioko eguzki-energiako munduko eraikuntza berriko proiektuen % 63an parte hartzen dute".

Prentsaurrekoan egindako agerraldiaren ondoren, ordezkariak instituzionalak eguzki-energia termikoaren eta fotovoltaikoaren laborategiak bisitatu ditu. Bazkaria egin dute Berrikuntzaren Hirian lan egiten duten energiaren arloko enpresetako ordezkariak (Gamesa, Acciona Energia eta Ingeteam) eta, ondoren, Accionar Energiaren CEOER zentroa (Energia Berriztagarrien Kontrolerako Zentroa) eta Gamesaren garapen teknologikoak ezagutzeko aukera izan du EBko lehendakariordeak.


Agendaren bigarren zatian, Zangozara joan da europar ordezkariak; han, aplikazio industrialetarako CENERen Atenea mikro-sarea bisitatu dute, eta Smart Cityen arloko bere jarduerak ere ezagutu dituzte. Ondoren, Aerosorgailuen Entsegu-laboregia ikusi dute; hantxe daude palen entsegurako eta potentzia trenaren entseguetarako pabilioiak, mundu osoko bezeroentzako erreferente diren entsegu-azpiegituren erakusle.

2004az geroztik, CENERek Europako 74 proiektutan parte hartu du; horietatik 28 martxan daude gaur egun. Orain arte 12,6 milioi euroko diru-sarrerak ekarri dizkiote zentroari. Sefcovic lehendakariordearen bisita CENERen jardunari izen ona ekarriko dio, nazioartean jarduten duen zentro teknologiko gisa.

### **CENERi buruz**

Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalak (CENER) energia berriztagarrietan aplikatzeko ikerkuntza garatzen du, eta euskarri teknologikoa ematen die nazioarte mailako energiaren arloko enpresei eta erakundeek, sei lan-arlotan: eolikoa, eguzki-energia termikoa eta fotovoltaikoa, biomasa, eraginkortasuna eta sorkuntza eraikinetan eta hirigintzan, eta energia-sarean sartzeko. CENERen Patronatua osatzen duten erakundeak dira Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa, Ciemat, Energia, Turismo eta Agenda Digital Ministerioa eta Nafarroako Gobernuak.

### **Galería de fotos**



CENERen entsegu-azpiegiturara egindako bisita.



Ezkerretik eskuinera: Maros Sefcovic, Pablo Ayesa, Manu Ayerdi eta Juan Maria Vazquez, instalazioetara egindako bisitan.



CENERen egoitzan egindako prentsaurrekoa.